

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 244. zkia. 2016ko apirila



**ermuan
bagara**



**Maiatzaren 28an,
12 ordu eta erdi
euskaraz**



IRAZABAL
clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **twa twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara



BATXILERGOKO
AURREMATRIKULA
Maiatzaren 2tik 12ra

* Ermua-Anaitasuna eta Ermua-Ongarai idazkaritzetan *

Astelehenetik ostiralera 08:30 - 14:00

Tlf: 943254525 - 943170983

<http://www.ermuabhi.hezkuntza.net>

Gure eskaintza



DBH
(12-16 urte)
B, D ereduak



BATXILERGOA
(16-18 urte)
ZIENTZIAK eta GIZA ETA G. ZIENTZIAK

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ermuan Bagara.

LAGUNTZAILEAK:

Amalia Arginzoniz,
Antonio Hernández 'Cuco',
Leire Elustondo,
Roberto Ferrera,
Patxi López,
Juan Carlos Martín,
Valentín Mugarza,
Edorta Unamuno eta
Uni Eibar-Ermua.

ARGAZKIAK:

Maialen Agirregomezkorta,
Amalia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Leire Elustondo
Roberto Ferrera,
Eider Gisasola,
Estibalitz González,
Jesus Gonzalez, Insohmio,
Irulitxa Elkarte,
Valentín Mugarza,
Uni Eibar-Ermua eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Olatz Garitagoitia,
Nora Mateos eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

SAGUZARRA *Murciélago Pipistrellus pipistrellus*

Gorputzaren kolorea eta tamaina dela, belarrien eta hegoen forma eta luze-
ra dela, elikagaiak edota bere ohiturak direla... munduan barre-
na ia mila saguzar espezie desberdin daude

katalogatuta; beraietatik 24
gure parajeotan erregistratuta
daudenak. Teilatupeetan, base-
rrietako sakape eta ganbare-
tan, aukeran horma-zulo edo
ateburuko zirrikituren baten,
hantxe egoten da, buruz behe-
ra txintxilika, egun osoan ikara-
rik ere egin barik. Ilunabarrak esna-

tzen du eta gau guztikoa egiten du ehizan, eltxo, kakalardo, sits eta armiarmen kal-
terako. Animalia beldurgarrian bihurtuta zine eta ipuinen eraginez, berez ez die
erasorik egiten pertsonei, norbaitek esku artean hartu-edo eta bere burua arriskuan
ikusten duenean ezik. Bere fama eskasaren gainetik, onurak besterik ez ditu ekar-
tzen.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4	ESKOLEN TXOKOA17
Roberto Ferrera (Estatu Batuak)	Uni Eibar-Ermuko berriak
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA18
Bernardo Atxaga	Zer egin dezakegu 40 urteko gorako langabetuekin?
MALLABIAN ZER?8-9	BOTEPRONTOAN19
Mallabiko musikarien bilduma	Unai Rodríguez
ERMUAN ZER10	ANTZINAKOAK.....20
Irulitxa Fanfarrearen urteurrena	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA.....12-13	SALEROSKETAK21
Txidurri buruan eta ibili munduan!	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?14-15	AGENDA21
"Ermuan Bagara"	Maiatzeko agenda
MOTZEAN16	
Jesus González saridun	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Roberto Ferrera

Neska amerikarra ezagutu zuen Tailandian 2011n eta maitasun harremana piztu zen. Noizbehinka ikusten aritu ziren 2013ra arte, eta urte horretan Kaliforniara bizitzera joatea erabaki zuen Roberto Ferrera "Kampe" ermuarrak.

- Erabaki erraza izan zen?

Ez, oso zaila egin zitzaidan aldentzea. Lau anai-arreba ditut eta zazpi iloba, eta amarengandik oso hurbil bizi nintzen. Oso harreman estua dugu familian, eta egunero afaltzen nuen eurekin.

- Zer espero zenuen Estatu Batuez?

2012an 27 egunez egon nintzen Kalifornian neskalguna bisitatzen, eta orduan ikusi nuen hemengo errealitatea. Ez nuen gauza handirik espero, joateko arrazoi bakarra nire neskalgunarekin egon eta esperientzia berria bizitzea zen.

- Nolako da Campbell?

Silicon Valley deritzo bizi naizen inguru honi eta kultur-aniztasun mailarik altuenetarikoa du mundu osoan. Hamaika kulturatako pertsonak ezagutzeko aukera eman dit: alemaniarak, errumaniarrak, perutarak, persiarrak, jordaniarak, italiarrak, korearrak, txinatarrak...

- Zerk harritu zintuen hasieran?

Gauza ezberdin asko daude. Familia bereko kideek, orokorrean, ez dute harreman handirik: 18 urteko gazteak beste estatu batzuetara joaten dira ikastera eta batzuetan ez dira bueltatzen.



Roberto Mount Whitney, Kalifornian (4.421 m.), Estatu Batu kontinentaletako mendirik garailenean.



Campbell,
Kalifornia,
Estatu Batuak

Bestalde, berebiziko garrantzia ematen diote lanari, eta lan-arrakastak dauka beste ezerk baino garrantzi handiagoa. Gainera, ez daukate jateko ordutegirik. Edozein ordutan jaten dute, edozer. Janari lasterra oso merkea da eta gizentasun tasa itzela da horregatik.

- Nola moldatzen zara ingelesarekin?

Etorri baino lehen bi urte egin nituen Hizkuntza Eskolan, baina hona heltzean galduta ibili nintzen. Gaur egun ondo moldatzen naiz, baina jargoia erabiltzeko arazoak ditut, hori ez dizute eskolan erakusten-eta.

- Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak. Hango mendiak faltan botatzen ditut, batez ere Pirinioak eta lagunekin arroila-jaitsiera egitea.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Goizetan klasera noa. Park Management izeneko programa egiten ari naiz,

bi urtez, Parke Naturaletan lan egin ahal izateko. Bazkaldu eta gero, berriz, bi zeregin ditut: UBERrekin taxi-gidari ibili eta beste enpresa batekin denborarik ez dutenei edo ezin dutenei erosketak egiten dizkiet eta etxera eraman. Jatetxe bateko sukaldean egin nuen lan ere eta igerilekuak konpontzen haiek hustu barik, hau da, urpean igeri egiten. Aisialdian bizikletan ibili eta mendira joaten naiz.

- Noiz egon zinen Ermuan azkeneko?

lazko apirilean joan ginen, ezkontzeko. Sei hilekoa bukatzen dudanean, maiatzaren bukaeran, hara joango naiz oporretan.

- Ermura bizitzera bueltatuko zinateke?

Oraindik nire etxea dut Ermuan eta familia osoa dut bertan, baina momentuz nire etorkizuna hemen dago.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ


AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Bernardo Atxaga, idazlea:

“Idazle izateaz gain, eragileztat ere hartzen dut neure burua”

Jose Irazu (Asteasu, 1951), Bernardo Atxaga goitzenaz ezaguna literatura munduan, hainbat liburu, ipuin, eta abarren idazlea da. Zalduondon bizi den autorea eta hizlaria, Uni Eibar Ermuako ikasleekin literaturaz eta idazteaz solasean aritu zen pasa den hilaren 6an. Ikasleen galderak erantzuteaz gain, hitz egitetik idaztera nolako jauzia dagoen azaldu zuen egile asteasuarrak. Nobelagintzan eta ipuingintzan aritu ostean, Euskaltzaindiarekin batera martxan jarri duen Erlea aldizkariaren zuzendaria da egun.

- Zelan baloratzen duzu Erlea proiektua?

Ofizioz, idazle izateaz gain, sortzailea ere kontsideratzen naiz beste proiektuetan murgilduta ibili bainaz denbora luzean. *Erlea* aldizkaria kaleratu genuenean bagenekien maila handiko aldizkaria zela, denbora luzez landu dugun proiektua baita. Aurretik *Pott*, *Ustela*, edota *Garciaarena* fanzinean ibilia nintzen. Nire ustez, idazleok beti izan dugu egin-kizuntzat beste batzuekin alderatuz txikia eta hurbila den euskal kulturgintza sustatzea. Kultura ondo badao gu ere bide beretik ibiliko gara. Beraz, idazle izateaz gain, eragiletzat ere hartzen dut neure burua.

- Nola kudeatzen duzu aldizkaria?

Hasieran pentsatzen nuen onena zela jendearekin biltzea, bilerak egitea eta lana banatzea. Hau ez da hartu beharreko bidea. Bilerak eta lana gauza ezberdinak dira. Bileretara jende asko doa, eta lan mahaira oso jende gutxi. *Erlean* oso lan talde txikia dugu, hiru pertsona baikara. Nire emaztea den Asun Garikano, Pamielako Txema Garaz eta neu. Urteko ale bakarra ateratzen dugu, baina aurrera darrai. Hamargarren zenbakiarekin gabilta momentuan. Beste jende askorekin ibili naizen proiektu asko ez dira aurre-

ra atera. Kultura ekimenetarako hobe da *Jeep* bat autobus bat baino. Autoa mugitu egiten da, gure kasuan hiru pertsonako *Jeepa* aurrera doa larunbat eta igandeetan lan eginez beharrezkoa denean.

- Hamargarren alearen ondoren, nolako bidea hartuko du Erlea proiektuak?

Nik eragile bezala pentsatzen jarraitzen dut, eta sari bat antolatzeko asmoa daukat. Sariak indarra hartuko balu, eta benetan eragina izan dezan, ondo antolatu beharra dago. Pentsatu dudana baldintza nagusia 4 eta 14 orrialde bitarteko lanen luzeran dago, jende askok parte har dezan. Ez dit axola nolakoak edo non argitaratuak izan diren. Sari ekonomikoaz gain urrezko erle baten ikurra eskainiko da, gerra aurrean ikur hori zeukan sari bat baitzegoen. Arlorik zailena epaile taldea lortzea da. Jende ez profesionala bilatzen ari naiz, irakurle on eta literatura zaleez osatutako epaimahai bat sortzeko.

- Garai hauetan paperaren alde egin duzue apustua. Ez ote da arriskutsua?

Nire buruari askotan egin nion galdera da. Paperaren mundutik nator, diseinatzaile, argazkilaria eta pintore ugari ezagutzen ditut, digitaletan oraindik murgiltzeke nago. Dena dela, multime-



diarako saltoa bigarren mailakoa iruditzen zaidan arren, egin beharreko gauza bat da. Paperezko aldizkarian beste denbora mota bat dago, urte osoan irakurtzeko edukia baita. Momentuan paperan ondo gabiltza, baina multimediarako bidea hor dago.

- Multimedia oinarri, euskal kultura ondo igo da tren horretara?

Itxuran bai, baina zulo bat kenduta, Wikipedia izenokoa da. Pena handia ematen dit papera hautsa bihurtzen ari diren ehunka itzultzaile ikustea. Wikipedia sendo bat egin beharko lukete euskal kulturaren mesederako. Euskaraz informazioa urria da beste lengoaiekin alderatuz, eta hori hobetu beharreko gaia da. Sare sozialak begi onez ikusten ditut, Wikipedia da hobetzeke dagoen tresna, eta horren atzean proiektu politiko bat dago, itzultzaileak lan batetik bestera murgildu behar baitira.

- Urteotan bizi izan dugun testuinguruan esan ohi zen

maitasunarentzako tokirik ez zegoela. Bizi izan dugun gatazka politikoak euskal kultura murriztu du?

Beste arbolak estali dituen pinua izan da hemengo gatazka. Ideologia politiko murrizteak, karikaturatuek, siglek, eta lemek asko urritu dute guztia. Ernio mendia betidanik egon izan da kolorezko zintez apainduta. Demokrazia ezarri zenean, kolore askotarikoak izatetik gorri, txuri eta berde izatera pasa dira. Maitasuna hizkuntzatik datorren eta berbalizatu egin behar den gauza da, nola deklaratu behar dugun jakin behar duguna. Izaera politikoak dena erraustu guztiak tapatu baitziren. Xabier Letek gauari buruzko poemak kantatzen zituenean, Pantxoa eta Peioren kanta konprometituek beste maila apalago batean uzten zuten.

- Behin testuinguru hori iraulita, beste sasoi oparo bat datorkigu?

Baiezkoan nago. Esan gabe doa ETA bezalako talde batek

“Hil ala biziko auzia da itzulpena, euskararentzako funtsezko oinarria”



Drogetenituri, 244 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

dena zurrupatu zuela, euskal kultura menderatuz. Jende askok barne askatasun handia aurkitu du orain, eta be-launaldi gazteei beste paisaia bat ireki zaie, argiagoa. Lehenago zegoen totema desagertu da. Gizarte berri bat sortu da non familia patriarkalaren kritika, mugimendu feminista eta ekologistak agertu baitira.

- **Renon urtebetez egon zinen testuinguru sozioekonomiko ezberdin bat bizi duten AEBko euskal hiztunekin. Euskararen kasuan, globalizatutako hizkuntza izatetik, hizkuntza globalizatzaile izatera pasa da?**

Ona da euskarentzat hainbat lekutan izatea errefe-

renteak. Ez itotzeko eta irla konplexuak gainditzeko mapa betetzea positiboa da, baita animikoki ere.

- **Hasierako Pott bandatik hona, zertan aldatu da euskal literatura?**

Ezerk ez dauka hasierakoak baino indar handiagoa. Aresti, Mirande eta besteak hasi ziren, eta guk horien erreleboa hartu genuen zeren beraiek gutxi ziren. Guk beste kutsu bat eman nahi genion, behar handia baitzegoen. Oraingo egoera bestelakoa da, ugariagoa. Orduan indar handia zegoen baina oso jende gutxi ginen. Orain pelotoi handiagoa dago, eta beste dimentsio bat hartu du euskal literaturak. Beraz ez goaz gaizki alde horretatik.

“Beste dimentsio bat hartu du euskal literaturak”

- **Azken mapa soziolinguistikoa euskara oso ahuldu-ta agertu da betidanik lehen indarra izan den eskualdeetan.**

Hizkuntza neurtzeko gauza xamurra da. Egia da ehuneko ehunean euskara hitz egiten zen eremuetan galera egon dela, baina orain dela 30 urtera arte euskarak presentziarik ez zuen herri batzuk ere badira, Zalduondon adibidez. Orain, 30 urtetik beherako guztiek erabiltzen dute. Guztiak dira gai euskara ondo ulertzeko. Lehen, toki batzuetan ezinezkoa zen hitzaldi bat euskaraz ematea, orain, berriz, ez dago arazorik. Ezin daiteke esan egoera larria denik, baina badira arazoak. Orduan hizkuntzak ulertzea zaila da. Azkenean gutxiengo guztiek dituzte arazoak, eta euskara ez dago aparte.

- **Beti aipatu izan duzu euskararen etorkizuna itzulpengintzan dagoela. Azkenaldian, denon ahotan dago Finlandiara joandako ikasle euskaldun**

batzuek egindako Suomi-Euskara hiztegia. Bide onetik gabilta?

Nik uste dut, Europako herrialdeetan bezala, itzulpena oso beharrezkoa dela eremu oso urria garelako. Suedian esaterako, liburuen %60 inguru itzulia da, Ingalaterran ostera %2 soilik. Beraz, guk itzulpena behar dugu, ondo egindako literatura egunero-ko bizitzarako. Edozein gutun edo mezu ondo idatzita. Niretzako hil ala biziko auzia da itzulpena, euskararentzat funtsezko oinarria.

- **Lehen aipatu duzun moduan, lobby feminista eta ekologistak asko hazi dira azken urteetan. Badago euskararen aldeko lobby bat sortzerik?**

Maximoetan zaila da finkatzea, baina minimo batzuk bermatzeko hitzarmen bat egitea posible litzateke. Nahi den hizkuntzan hitz egiteko eskubidea lortzea da horietako bat. Horiek lortzerik balego, lobby hori posible izango zen.

Paul Bustindui



Argazkia: Uni Eibar-Ermua


AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

hamburguesería
TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Mallabiko musikarien bilduma

Aurreko mendeko eta gaur egungo herriko musika joleen biografia eta argazkiak bildu dituzte eskolan; herrira zabaldu dute dagoeneko.

Euskara Egunaren arrimora izan zen: Euskal Herriko musika tresna tradizionalen erakusketa txiki bat jartzea pentsatu zen, gurasoentzat eta umeentzat ikusgai eta, zelan ez, azken hauen eskuragarri. Hurrengo proposamena izan zen zergatik ez ipini ere tresna horiek jo dituzten mallabitarrrak. Txistulari eta soinu joleekin hasi zena, herriko rokc talde, bakarkako abeslari, organo jole eta enparauok ere sartuaz amaitu zen. Eskolako hormetan zintzilik egon ziren orriak, gerora liburu erraldoi bihurtuta, etxerik-etxe eta familiaz-familiako ibilbidea hasi zuten. Eskolanteen Aste Santuko oporraldian, musikarion bilduma hori tabernaz-taberna ibili zen, gaintzeko herritarren gozamenerako. Ekaineko Hamabostaldiko azoka egunean, erakusketa gisa, frontoian jartzeko gonbitea jaso du eskolak. Hantxe izango dituzue berriro!

Estibalitz González

MALLABIKO MUSIKARIAK



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

MUGA

MUGIKORRA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

SEHIGA

PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

OTXANDION IZANGO DA KANTUAN JASOKUNDE ABESBATZA

Datorren apirilaren 30ean, Mallabiko Jasokunde Abesbatza Otxandiora joango da kantuan. Bertan, kontzertu oso bat eskainiko dute, eta azken bi kantuak Durangoko Laminamak eta Otxandioko kantu-tailerrean dabilzan ikasleekin batera abestuko dituzte. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da herriko elizan. Ekitaldia bukatu ostean, kantu-poteoa egongo da Otxandioko kaleetan zehar giroa alaitzeko.


Bestalde, ekainean Arratiako Arantzazura ere antolatu du irteera Jasokunde abesbatzak. "Ekainaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan Arantzazun izango gara", adierazi du Leire Uribelarrea koruko kideak. Kontzertua bi zatitan egongo da banatuta, sakroa aurrenik eta folklorea ondoren. Mendibil abesbatzak ere bere elkartrukea izango du uda aurretik, ekainaren 18an, zapatua, Orduñara joango baita kantuan.

ANFITEATROAK EGURREZKO ESTALDURA IZANGO DU

Mallabiko anfiteatroa estaltzeko proiektuaren inguruan, herritarrei iritzia eskatu die Udalak. 75 herritarrek eman



dute botoa, orain aste batzuk egindako ekimenean. A eta B proposamenak zituzten aukeran. B proposamena izan zen garaile, botoen %64rekin. A aukera, berriz, %33k bozkatu zuen. %3k bietako bat ere ez zuen babestu. Aukera bietan, barruko espazioaren antolamendua berdina da. Ezberdintasun bakarra estalkia da. A aukerakoa kristalezkoa da, eta B aukerakoa egurrezkoa.



Barruan, umeentzat jolasak eta helduentzat gimnasio biosasungarrirako makinak ipiniko dituzte. Udal arduradunek aurreratu dutenez, eskailerak hormigoizkoak dira, eta tapatu egingo dira "hain arriskutsuak ez izateko". Lurra egurrezkoa izango da.

Paul Bustindui

IZEN EMATE EPEA ZABALIK Maiatzaren 2tik 11ra, 0 eta 2 urte bitarteko umeentzat Irailan, urrian eta azaroan hasteko



Ekainean
ATE IREKIAK
berriro ere

Hurrengo matrikulak:

URRIAREN 3tik 10era: abenduaz, urtarrilean edo otsailean hasteko.

URTARRILAREN 9tik 13ra: martxoan, apirilean, maiatzan edo ekainean hasteko.

ERMUKO HAURRESKOLA
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)
943 17 64 31
ermua.ermua@haurreskolak.eus

Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Irulitxa Fanfarreak 20 urtez gure artean

1996ko maiatzaren 8an sortu zen Irulitxa Fanfarrea, herriko lagun talde batek sustatuta eta Musika Eskolaren laguntzarekin. Hogei urte igaro dira ordutik, eta gaur egun talde sendoa da, ibilbide oparoa egin duena. Hala ere, proiektu berriak dituzte esku artean, tartean Irulitxa Txaranga.



Apirilaren 8tik 10era ospatu zituen Irulitxa Fanfarreak bere 20. urteurrenaren lehen ekitaldiak. Asteburu horretan musikaz bete ziren herriko bazter guztiak, ha maika lekutik etorritako musikari eta dantzarietarako: Ustekabe (Eibar) Gazte Txaranga (Iruña), Charanga Corco (Logroño) Charanga sin juicio (Casalareina, Errioxa), The Joselontxo's Txaranga (Donostia), Groseko Iñude eta Artzaiak (Donostia)...

Izan ere, badago zer ospatu. 1996ean elkartu zen lagun talde hura, sari ugari jaso dituen musika banda bilakatu da. Horren erakusle da Condom hiriko Nazioarteko Banden Txapelketan Urrezko

Palma jaso zutela 2010ean. 2013an, berriz, Brontzezko Palma jaso zuten orotariko kategorian; musika tradizionalan eta kreaiziorik kategorietan, berriz, lehen sariak eskuratu zituzten.

Eta Condomen egin zuten bezala, duten onena erakutsi zuten irulitxatarrek euren ospakizunetan: kalejira, poteo, erakustaldi eta kontzertuen bitartez. Aldi berean, momentu hunkigarriak eskaini zizkieten entzuleei, zendutako taldekideei omenaldia egin zizkietelako: Juan Antonio Gómezi, Luis Mari Gorritxategiri eta Miguel Ángel Bravori.

Txarangaren aurkezpena

22 musikaririk osatzen dute Irulitxa egun, 18 urtetik 73

urtera bitartekoak, eta tartean Fanfarrearen fundazioan parte hartu zuten hiru kide daude oraindik: Pedro Urreta, Javi Agüero eta Alberto Rodríguez. “Gaur egun kideen erdia kanpokoak dugu eta hemendik herriko neska eta mutilak gurera deitu nahi ditugu”, dio azken 14 urteotan Irulitxako zuzendaria den Gorka García “Kaska” gasteiztarrek. Ermuko jende gutxi izateak hain zuzen ere, proiektu paraleloa sortzea eragin du, Irulitxa Txaranga. “12 musikaririk osatzen dugu Txaranga (2 ermuar eta 10 kanpotar), eta talde horrekin estatu osotik mugitzen gara. Ermuan eta inguruetan jo behar dugunean, berriz, Fanfarre moduan ibiltzen gara -dio

gasteiztarrek-. Txarangarekin bi urte badaramatzagu ere, apirilean aurkeztu dugu ofizialki Ermuan”.

Maiatzaren 8an urteurren ofiziala izango da eta Kulturaren aldeko kontzertua eskainiko dute, Alboka Musika Eskola, Pispilu abesbatza eta Txindurri dantza eta txistu taldearekin batera.

Familia txiki bat da Irulitxa, musikaren bitartez disfrutatzen duen hasierako lagun talde zintzoa, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiete ermuar guztiei, euren partaidetza eta babesagatik. Irulitxan izena eman nahi dutenek edo kontratazioetarako taldearen facebookera jo dezakete edo 600435000 telefonora deitu.

BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

Udalekuak Ermuan Ingelesezi:



ERMUAN



Udalekuak Formigalen Ingelesezi:

English fun Udalekuak

DENA INGELESEZI

- Learn English while playing
- Great place to stay
- Enjoyable every second
- Loads of new friends
- Indoor & outdoor activities
- Unforgettable experiences

“20 urte baino gehiagoko esperientzia ingeles-klasetan”

ZER egingo dugu?

- Egun osoko 2 txango (klimatologiaren arabera: Le petit Train d'Artouste, Villanua de Jaca, Ordesa, Panticosa)
- Ekintzak: Kanoak, gymkana, mendi ibilaldiak, kirol olinpiadak, eskulan eta sukaldaritza tailerrak, proiektuak, kanpaldia Astronomia tailerrarekin, gau-jaiak diskotekan, arborismoa, izotz irristaketa.

Gainera, ERABATEKO INSTALAZIOAK:

- Joan-etorriko garraioa.
- 3 izarretako hotelean egonaldia, logela bikoitza edo hirukoitzean.
- Igerilekua.
- Tennis-pista eta futbol-zelaia.

FORMIGALEN



Akerlei
hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA
943 17 66 32
www.akerlei.com

Txindurri buruan eta ibili munduan!

Martxoaren 22an Txindurri Dantza eta Txistu Taldeko kideok abentura berri bati ekin genion: Praga, Viena eta Budapesteko folklore internazionalako jaialdira bidaiara, hain zuzen ere.

Goizean goiz hartu genuen hegaldia Pragarantz. Egun hartan Bruselako aireportuko atentatua zelareta, itxaronaldia luzatu egin zen eta gau partean heldu ginen bertara, baina tira, hurrengo egunetako gozamenak ikusita, itxaronaldia merezi izan zuen.

Praga

(4 egun eta 3 gau)0

Goizak hiria bisitatzeko antolatuta genituen bai *free tour* delako baten bitartez, baita gure kontura ere. Hirriaren xarmak, eraikinek eta historiak aho zabalik utzi gintuzten. Benetan gomen-dagarria!

Arratsalde aldera izan ziren dantza ekitaldiak; gure dantzak Serbia, Bosnia, Turkia eta Israelgo taldeekin batera jendaurrean eskaini ge-

nituen. 10 minutuko dantza ekitaldiak bata bestearen atzean eta, txaloak? Garestiak. Deigarria iruditu zitzaigun ikuslegoaren aldetik txaloak ez jasotzea. Lehenengo dantzalditik triste irten ginen baina gure sorpresarako, ikusleek zoriondu egin gintuzten! Badirudi txalotzea ez dela bertako ohitura. Bigarrenearako bagenekien.

Viena

(3 egun eta 2 gau)

Martxoaren 25ean Vienara abiatu ginen. Aurretik ez genekien, baina bidaiara Israeleko dantzariekin batera egin behar genuen eta, horrela, Austriara bidea hartu genuen. Vienako estantziaren alderik onena, hotelaren kalitatea: logela eleganteak, jangela itzela... Ondo aprobetxatu genuen hotela! Estantziaren alderik txarrena,



hotela Vienan ez zegoela. Bidaiara dezente luzea geneukan hiriaren zentrorra eta hori hiria ezagutzeko itzelzko muga izan zen. Hori dela eta hiriari bisita *express* bat egin genion. Hala ere, aipatu beharrekoa da hiriko eraikinen handitasun eta dotoretasunak bertara bueltatzeko gogoarekin utzi gintuela.

Hotelean bertan egin genuen dantza arratsalde hartan. 10 minutuko ekitaldia

berriro eta oraingoan aurrekoei Txipre, Bulgaria eta Mazedoniako taldeak gehitu zitzaizkion. Eta horrekin batera, txaloak eta taldeen arteko giro paregabea.

Gau hartan Turkiako lagunak egin genituen eta bertako dantzak ikasi ere! Gau polita izan zen hura! Haiantzat bidaiara Vienan bukatu zen, gurea berriz Budapestean, beraz, hurrengo goizean bertarantz abiatu ginen.



-%50!!

Atsedendiaz hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Ermua)
943 177 041



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

Talde-saiak

Hirugarren adinerako gimnasia

Emakumeen korrikalari klubak

Kirol aholkularitza, planifikazioa eta jarraipena



Entrenamendu pertsonalak

Análisi biomekanikoak

Talde txikiak

Susperaldi funtzionala

Iparragirre 13 Behea (Ermua) • 943177094
e.sporti.cep@gmail.com



Sagarra

Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Budapest (3 egun eta 2 gau)

Heldu bezain pronto jantzi eta dantzalekura joan behar izan ginen, dena korrika eta presaka, denbora gutxirekin. Paskoa zen eta bertako hotelko langileak oporretan omen zeuden. Beraz gure logelak astiro-astiro-astiro prestatu zituzten. Hemen talde gehiago batu zitzaizkigun, gehienak serbiarrak eta horrek zekarren, ezinbestez dantza batzuk errepikatzea. Eta guk ikasten genituen. Beraz, orain Txindurriko dantzariak gerrikoari heldu eta saltoka ikustea ez da batere arraroa. Dantza taldeez gain hainbat koro batu ziren age-

rraldira eta batzuk hunkituta utzi gintuzten euren ahotsekin.

Gauean afaldu eta hotelean gelditu ginen (argi geratu zitzaigun zopa zela bertako plater garrantzitsuena). Hurrengo eguna zen dantzaldirik ez geneukan egun bakarra. Pester bisita, izugarria, *free tour*arekin batera. Goiz afaldu eta dantzari guztiak *boat tripa* egitera joan ginen, Danubio ibaia zeharkatuz, gauez, hiria argiz betirik, bai Buda bai Pest.

Hori egin ostean Zsimple taberna ospetsua bisitatu genuen. Bertan zerbait hartu eta festa pixka baten bila joan ginen. Airean utziko dugu aurkitu genuen ala ez! Hurrengo goizean Buda aldeira joan ginen, Budapesteko gaztelua, katedrala eta inguruak ezagutze asmoz; zorte txarrez, edo guri inoiz gertatzen ez zaigun moduan, euri zaparrada erori zen. Berriz ere goiz afaldu eta dantzatzerara abiatu gi-


nen, Hungariako herri txiki batera. Gure azken dantza erakustaldia, bidaia bukatzeaz...

Bidaiaiko ekitaldirik onena eta seguruenik aspaldian izan dugun esperientziarik onetakoa izan zen egun hartakoa. Dantzaldiak harrera paregabea izan zuen. Katxondeo pixka batekin gure txistulariari "Orchestra Woman" deitu zioten gainontzeko musikariek (kurioso zen hiru taldek bakarrik generamala musika zuzenean).

Israelgo taldearekin 8 egun igaro ostean haiek agurtzeak pena eman zigun. Taldeko umeek gure taldekide batzuekin egunero jolasean ziharduten eta taldeko zuzendariak gurekin oso detaile politak izan zituzten.

Eta gau hartan itzultzeko ordua heldu zen. Jaialdiko zuzendariak eta langileak besarkadekin agurtu eta autobusean bidaia luzea geneukan Pragara bueltatzeko.

Horrelako bidaia baten



helburua da gozarazten digun gauza bat eginez esperientzi berri eta aberasgarri bat izatea, dantza eta folklorea elkarbanatzea. Baina taldekideen harremanak sendotu egin dira eta horrez gain lagun berriak egin ditugu. A! eta poztasuna zer den ere erakutsi dugu, txaloak zer diren adibidez!

Amaitzen Arginzoniz



IES UNIBHI EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALENA!

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

BATXILERGOAK

Zientziak eta Teknologia
Humanitateak eta gizarte zientziak
Aukerako irakasgaien eskaintza zabalena

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

Nazioarteko ikasle-trukeak
UNI Encounter
Hizkuntzaren normalkuntza
Osasunarentzako programa
Urrats Bat
Agenda 21
Informatika ingelesez

TEL. 943 20 84 44
www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus

twitter @UniEibarErmua
www.facebook.com/iesunibhi

**BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULA:
MAIATZAREN 2-TIK 12-RA ARTE**

**ATE IREKIAK:
APIRILAREN 27AN 15:30-18:30
APIRILAREN 30EAN 11:00-13:00**

Maiatzaren 28an, 12 ordu eta erdi euskaraz

Ermuko Euskaltzaleen Sareak bultzatuta, "Ermuan Bagara" ekimena burutuko da Ermuan maiatzaren 28an, larunbata. 10:00etan hasita eta 22:30ak bitartean, hamaika tailer, kirol-saio, antzerki eta ikastaro eskainiko dira, besteak beste. Abestia ere prest dute antolatzaileek. Koreografia ikasi nahi?



Ermuan Bagara egunerako kamisetak eta poltsak Euskal Birusaren bulegoan daude salgai (Erdikokale zeharbidea 2, 1. pisua). Adin tarte bakoitzerako kolore bat aukeratu da maiatzaren 28a egun koloretsua izan dadin!

Prezioak:
Umeak: 8€ / Helduak: 10€
Poltsak: 3€



1. **You Tube**

2. **Ermuan Bagara** idatzi

3. **Dantzatu!!**

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

DESCUBRE-TÉ

Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51

es
egolek
electricitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK**
943 030 299

Heapaindegia

MT

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina n° 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook. <https://www.facebook.com/ileapaindegiamttxluqueria.mt>

ermuan bagara



Maiatzaren 28an, Ermuko plazan 12 ordu eta erdi euskaraz

EGITARAUA

- 10:00 Hasiera
10:00-12:00
- *KIROLGUNEA: Errotabarri eskubalo taldea, Futbol eskola, Ermuko pilotari ohiak, Atletismo taldea.
*Duatloi txikia (Ostots duatloi taldea)
*Irulitxa fanfarrearen kalejira
- 12:00-13:00
- *Enpanada ikastaroa (Galiziako zentroa)
*Punto tailerra eta hainbat kontu (Ermuko amamak)
*Irakurketa antzeztua (Gaztela-Mantxako Zentroa)
*“Lorea” gozoaren ikastaroa (Extremadurako zentroa)
- 13:00-14:00
- *Mintzodromoa (Berbalagun egitasmoa)
*Haurrentzat tailerra (Ikastolako Guraso elkarteak)
*Zirko tailerra (Gazte Asanblada)
- 14:15-14:45 Ekitaldi nagusia
*Flashmob-aren grabaketa (Antzokitiketan aisialdi taldea)
*14:40 Ermuan Bagara argazki jendetsua
- 15:00-16:30 Herri Bazkaria (Elkarte gastronomikoak: Urdinak, Arari, La Kolina, Arrano, Errekena)
16:30-17:00 Bertso saloa (Eskolak [Ikastola LH + Ermua BHI] + Bertsozale taldea)
17:00-17:45 Plaza dantza ikastaro irekia (Txindurri dantza eta txistu taldea)
17:45 - 18:15 Flamenko ikastaroa (Flamenko taldea)
18:15 - 18:30 Dantza moderno erakustaldia (Pamela Castroren dantza eskola)
18:30-19:00 Antzerkia (Sutegi antzerki taldea)
19:00-20:00 Ermuan kantuan (Euskal Birusa euskara elkarteak)
20:00-21:30 Kontzertuak
21:30-22:30 Gau Argirekin erromeria
- 12:15 Kalejira Orbe plazatik (Alboka musika eskola)
12:20 Euskaldun berria plazaren inaugurazioa, euskaldun berriei omenaldia
12:30 Alboka Musika eskolaren kontzertua (Pispilu abesbatza eta banda)
12:45 Kalejira, Euskaldun berria plazatik (Alboka Musika eskola)
17:00-20:00 Tirolina eta eskalada, plazako frontoiaren ondoan. (Artarra mendiko taldea)
- Egun osoan zehar:
Bideo proiektzioa "Euskaldun berria plazan": Ermuan Bagara egitasmoa parte hartzaileen bideoak ikusi ahalko dira.
Kalejirak: Alboka Musika Eskola, Irulitxa fanfarrea.
Txoana Orbe plazan
Astean zehar:
25. asteazkena, 19:00etan Emakumearen etxean: "Euskaltzalgintza eta feminismoa" solasaldia Lorea Agirre eta Mariluz Estebanekin.
28,29,30. Zinea euskaraz, "Picadero" filmea.
29. igandea: Haurrentzako zinea euskaraz
Maiatzaren 23tik 27ra: Dendari elkartearen zozketa

ERMUAN ZER?

15

PARTE HARTZAILEAK

- | | |
|-------------------------------|-----------------------------|
| Kaltxango AEK Euskaltegia | Emakumeen Topalekua |
| Euskal Birusa | Ermuko Emakumeen |
| Euskara Elkarteak | Asanblada |
| Berbalagun egitasmoa | Ermuko Amamak |
| Udal Euskaltegia | Ostots Duatloi Taldea |
| Ermuko Dendari eta | Errotabarri Eskubalo Taldea |
| Ostalarien Elkarteak | Ermuko Futbol Eskola |
| Ermuko Udala | Ermuko Pilota Talde Ohia |
| Anaitasuna Ikastola | Atletismo taldea |
| Anaitasuna Ikastolako | Artarra Mendi Taldea |
| Guraso Elkarteak | Galiziako Kultur Zentroa |
| Ongarai LHI | Gaztela-Mantxako |
| Ermua BHI | Kultur Zentroa |
| Eskolabarri Ikastetxea | Andaluziako Kultur Zentroa |
| Antzixikitzen Aisialdi Taldea | Extremadurako |
| Flamenko Taldea | Kultur Zentroa |
| Bertsozaleen Taldea | Urdinak Elkarte |
| Alboka Musika Eskola: | Gastronomikoa |
| Pispilu Abesbatza, Banda. | Arari Elkarte Gastronomikoa |
| Sutegi Antzerki Taldea | Arrano Elkarte |
| Irulitxa Txaranga | Gastronomikoa |
| Txindurri Dantza | La Kolina Elkarte |
| eta Txistu Taldea | Gastronomikoa |
| Gazte Asanblada | Errekena Elkarte |
| Komite Internazionalistak | Gastronomikoa |
| Pamela Castroren | Isuna Musika Taldea |
| Dantza Eskola | Gau Argi Erromeria Taldea |

IZI Ignacio Zuloaga Institutua Eibar

AB Arte Batxilergoa

Aurrematikula

Maiatzaren 2tik 12ra

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

XXIV. LIBURU ETA DISKO AZOKA BURUTUKO DA MAIATZAREN 19TIK 22RA

IÑIGO ETA ALEX UGENAREN MARKAK

Martxoko aldizkarian bi anaiek lortutako emaitzak nahastu genituen. Hauek dira datu zuzenak: Iñigo Ugenak brontzezko domina lortu zuen pertika-jauzian Espainiako Jubenilen Txapelketan (4,41 metroko jauzia). Bestalde, Alex Ugenak 8,69 segundoko marka egin zuen metro bateko hesi-lasterketan. Horri esker, Espainiako Junior Txapelketara joateko aukera izango du.

ERMUA IZANGO DA EUROPAKO EMUSIK JAIALDIAREN EGOITZETAKO BAT

Donostia 2016k Musika Eskolen Europako Jaialdiaren XII. edizioa hartuko du. Maiatzaren 4tik 7ra, Europako 8.500 musika-ikasleek hartuko dute parte jaialdian. Egunik intentsuenak maiatzaren 6a eta 7a izango dira: EAE, Nafarroa, Iparralde eta Errioxako 59 herrialdeetan programazio zabala eskainiko baita herri-tarrei zuzenduta. Ermuan bi kontzertu egingo dira, lehenengoan Eslovakia eta Hungariako ikasleek joko dute (maiatzaren 6an, 19:00etan, plazan) eta bigarrenean Alemania eta Suitzakoek (maiatzaren 7an, 12:00etan, plazan), bietan herriko musika eskolako ikasleak izango dira anfitrioiak.


Jesus Gonzálezek irabazi du Gourmet Tapen Txapelketa

Apirilaren hasieran burutu zen Espainiako Gourmet Tapen Txapelketa, eta Ermuko Sagarra tabernako sukaldariak irabazi zuen lehen saria, berak sortutako *bakailao jogurtari* esker. 25 parte hartzaile lehiatu ziren, aurretik epaimahaiak aukeratu zituenak, eta inoiz baino urduriago egon zen Jesus final hartan. “30 minututan 20 tapa egin behar nituen, hotzetik hasita, eta nire ondoan pertsona bat nuen etengabe begira, kronometroa eskuan onartzen du-. Nire jogurta bakailao tranpantojoa zen: behean bakailao puska, erdian bakailao tripakiak eta goiko aldean ganba-ogia eta parmentine patata krema zuena. Gainetik tapa ipini nion jogurtari, benetakoa balitz bezala, zigilatuta. Denbora bukatu baino 6 minutu lehenago dena prest nuen”. Aurkezpenari, zaporeari eta osagaiei erreparatu zien epaimahaiak saria emateko (garaikurra eta 2.000 euroko txekea). Bizkaiko I. Ogitarteko txapelketa, Bilbo-Bizkaia eta Euskal Herriko pintxo lehiaketak eta Ciudad de Valladolid Pintxo Txapelketa Nazionala dira sukaldariaren hurrengo erronkak.



Bigarren estudioko diskoa kaleratu du Insohmnio taldeak

Taldearen 10. urteurrena ospatzeko, diskoa kaleratu berri du Insohmnio talde ermuarrak: Stamina. Bilboko Koba Estudioetan grabatu dute eta zortzi abestiz osatuta dago. Tartean taldearen lehen abestia euskaraz entzun daiteke, *Istoria ederra*. “Soinu metaleroagoa dugu orain, gogorragoa”, azaltzen du taldeko abeslariak, Cillok. Maiatzaren 21ean X. Vertigorock jaialdia burutuko da Ermuan eta bertan aurkeztuko dute diskoa, gainera Gorkizen, Durangon, Avilan, Salamancan, Madrilan, Segovian eta Calatayuden dituzte lotuta jada kontzertuak. Taldearen webgunean entzun eta deskargatu daiteke diskoa doan (insohmnio.bandcamp.com) eta maiatzetik aurrera plataforma digitaletan ere egongo da eskuragarri.



Bi ermuarrek jokatu dute Eskubaloiko Kopa finalean

Matxalen Ziarsolo (Bera Bera) eta Maialen Agirregomezkorta (Prosetecnisa Zuazo Barakaldo) Erreginaren Kopako finalean aritu ziren apirilaren 17an. Porriñon jokatu zen partida (Pontevedran) eta aipatzekoa da bi talde euskaldunek Erregina Kopako final bat jokatu duten lehen aldia izan dela. Talde donostiarra nagusitu zen (17-33), baina bai Matxalenek eta baita Maialenek ere balorazio positiboa egin zuten. “Titulu garrantzitsua zen guretzat -dio Matxalenek-. Gure 5. kopa izanik, etxera ekartzeko aukera genuelako. Horregatik irabazteko nahia eta asmoarekin irten ginen eta egia esan, oso partida ona egin genuen. Hasieratik fuerte ibili ginen defentsan, eta gure jokoa egin genuen kontraerasoan”. Maialenek, berriz zera dio: “Laurdenetako partida irabazi nahi genuen, eta marka hori lortu duen talde bizkaitar bakarra izan gara; hortik aurrera, disfrutatzea zen gure asmoa. Bera Berari irabaztea zaila da, eta gu ez gaude ohituta finalak jokatzen. Hala ere, pozik gaude gure lorpenarekin, Zuazo talde txikia delako, ez garelako profesionalak eta harrobiko jokalariai direlako nagusi taldean”.





PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ikasle-trukeak Frantzia eta Alemaniarekin



UNI Eibar-Ermua BHIko ikasleek bi elkartruke egin dituzte aurten. Lehendabizikoa Frantziako Luçon hiriko Lycée Atlantiquerekin; bigarrena, Sturtgatetik gertu dagoen HWS Albstadt institutuarekin (Alemanian). Bi trukeak antzekoak izan dira: gure ikasleak, bi irakaslez lagunduta, egokitu zaien hirira joan dira eta astebete pasatu dute hango ohiturak, kultura, hizkuntza eta bizimoduak ezagutzuz.

Oso erronka dibertigarria eta formatiboa izaten da, bere ohiko etxeetatik ehunka kilometrora astebete bititza, bakoitzak bere harrera-bikotearen etxean.

Alemaniako ikasle-trukea apirilean egiten ari gara. Albstadt hirian egon ginenean Konstantzako aintzira bisitatu, museo ugari ikusi eta kirola ere praktikatu genuen gure lagun alemaniarrekin, horrelako ikasle-trukeetan bititza guztia iraun dezaketean adiskideak egiten direlako.

Hona etorri direnean gure udaletxeak bisitatu eta Gernikako Bake eta Bilboko Guggenheim museora joan ohi dira. Ibilaldi bat egiten dute Flyscha ezagutzeko eta gure hiri nagusiak bisitatzera joaten dira: Donostia, Bilbo eta Gasteiz, urte bakoitzeko planaren arabera. Esperientzia beti positiboa izaten da eta guztiok hurrengo urtean trukea errepikatzeke gogoarekin geratzen gara.



Ikasle frantziarrak urrian etorri ziren gure hiriak eta ohiturak ezagutzera. Guk bisita martxoan itzuli genien. Frantzian, Futurroscope eta Atlantikoak bustitako hondartzak ezagutu genituen, ur kirolak praktikatu genituen eta Loirako haraneko gaztelu ederrak ikusteko aukera izan genuen.

Abeletxe Zentro Geriatrikoarekin dugun harremana

Duela urte batzuetatik hona Abeletxeko zentro geriatrikoarekin kolaborazioa egiten dugu: jada guk erabiltzen ez genituen baina osoki eraginkorrak diren ordenagailuekin ikasgela bat prestatu diegu, eta sarean jarri ditugu nabigatu ahal dezaten. Gure ikasle batzuk euren burua eskaintzen dute gure nagusiei ordenagailuaren oinarritzko erabileran laguntzeko: Interneten nabigatzen ikastea, posta elektronikoa erabiltzea edo ordenagailuko oinarritzko erremintak erabiltzea. Belaunaldien arteko esperientzia oso positiboa zalantzarik gabe. Oso harro gaude gure ikasleez.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44



Montis DQ
Mouth



san pelayo
 clínica dental hortz klinikak

San Pelayo 5, 1º
 Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04



SAGARDUI
 poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305





KRABI

Ileapaindegia
 Estetika

Tel: **943 03 17 56** Diputazio, 5 **ERMUA**

Zer egin dezakegu 40 urtetik gorako langabetuekin?

Ermuan, Lanbideren datuen arabera, langabetuen %83k 30 urte baino gehiago ditu. Kopuru horretatik erdia, 45 urtetik gorakoa da.

Helduak diren langabetuak (seguruenik familia-zamak dituztenak) emaitzarik gabeko lan bilaketan murgilduta daude. Eta horrez gain, lehen zituzten baliabideak galdu dituzte. Zerbaitetan formatzen badihardute ere, eta ezagutza eta trebetasun berriak bereganatzen ari badira ere, lanbilaketaren esparruan beharrezkoa da motibazioa eta nork bere erantzukizuna bultzatzen duten jarrerak lantzea.

Egindako ikerketen arabera, lanbilaketaren egoera honek ondo-

rengo eraginak ditu helduen adimenean: ongizate psikologiko orokorra apalagoa, sentimendu depresibo maila handiagoa, antsietate handiagoa, bizitzarekin asebetetze maila txikiagoa eta autoestimu baxuagoa.

Ondorio horiei aurre egiteko erantzun afektiboak landu beharoko genituzke (Zer sentitzen dut?), erantzun kognitiboak (Zer uste dut?) eta erantzun konduktualak (Zer egingo dut?).

Baina, benetan, zein esparrutan ari gara lanean psikologoak pertsona horiei laguntzeko? Hiru eremu interdependentetan dihardugu. Alde batetik, orientazio-lana egiten dugu, pertsona horiek profesionalki kokatzen laguntzeko.



Juan Carlos Martín

Bigarrenik, oreka bilatzen dugu, antolakuntza baten barruan langile batek izan beharreko konpetentziak eta langabetuaren prestakuntza maila errearen artean. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da psikologoek lan merkatuaren eboluzioaren berri izateak duen garrantzia, hala nola gaur egun existitzen ez diren eta etorkizunetan sortuko diren ogibideak aurreikustea.

Azkenik, funtzio prebentiboa egin beharoko genuke, langabetu helduengan arazo psikopatologikoak saihesteko. Horretarako gizarte-erakunde eta administrazioaren lankidetzara behar da, arrisku-kasuak lehenbailehen antzemateko.

“ Funtzio prebentiboa egin beharoko genuke, langabetu helduengan arazo psikopatologikoak saihesteko ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

UNAI RODRIGUEZ

- Zelan daramatzazu ikasketak?

Azkeneko urtean nago, bukatzen jada. Pena handia ematen dit egindako lagunengatik, baina amaitzeko gogoia dut.

- Etorkizunean nola ikusten duzu lan merkatua?

Elgoibarko ikastolan praktiketara ari naiz eta bertan muturra sartzen saiatuko naiz. Dena dela, ikastetxe publikoan lan egitea nahiago dut.

- Hizkuntzekin ondo moldatzen zara?

Euskara eta gaztelania ondo menderatzen ditut. Ingelesarekin dut arazoa, baina datorren urtean ikasteko tarte bat hartuko dut.

- Nolatan sartu zinen bertso-laritzan?

Ikastolan kuriositateak piztu eta Eibarko Bertso-laritzan Eskolan hasi nintzen 14 bat urterekin.

- Zein abiapuntu duzu gai jartzailen lanetan aritzean?

Gaiak Asier Ibaibarriagak sortzen ditu askotan. Bestela, Ermuko gabeziak, kontuak, albisteak bilatzen ditut.

- Praga, Viena eta Budapesten izan zen Txindurri Dantza eta Txistu taldea. Zer nolakoa izan zen esperientzia?

Folklore jaialdi hartan bost kontzertu eskaini genituen eta aurreneko bietan ez gintuzten txalotzen. Aho zabalik gertatu ginen.



Maria del Puerto eta Julioaren semea da Unai Rodriguez Fernandez eta ez da geldirik egoteko: Lehen Hezkuntza ikasten ari da Donostian, Elgoibarko Bertso Eskolako irakaslea da, aisialdian monitore dihardu, Txindurri Dantza Taldeko kidea da eta tabernari aritzeko tarterik ere badu.

- Europa aldean ez al dago txalotzeko ohiturarik?

Bai, bai. Kontua da gure dantzak ikuskera tradizionaletik aldentzen direla eta emakumeek gizonen pare dantzatzen dutela. Horregatik behar bada ez gintuzten txalotzen...

- Politikan ere muturra sartuta... Zergatik?

Gabezia asko ikusten ditudalako Ermuan, eta nire ustez politikak hutsune horiek bete behar ditu.

- Zer nolako gabeziez ari zara?

Euskal ideologia esaterako baztertuta ikusten dut.

- Zer aldatuko zenuke herrian?

Lehenik eta behin alkatetza. Ez du Ermura begira lan egiten, Bizkaira begira baizik.

- Zu zeu alkate izateko...

Herriaren ahotsa izaten saiatuko nintzen. Hori da orain gertatzen ez dena!

- Saltsa asko dastatzen dituzu... Zeinek du zaporerik goxoen?

Euskal kulturak.

- Nola lasaitzen duzu zure burua?

Begiak itxiz zaratarik ez dagoen tokiren batean.

- Biziorik?

Zerbait egitearen beharra.

- Nola definituko zenuke zure burua?

Pertsona aktiboa eta des-pistatua naiz.

- Musika estilo bat...

Rocka.

- Bidaia bat nora?

Eskoziara, Irlandara, Argentinara, Polinesiarara...

- Mendi kuttunik?

Ez naiz mendi zalea. Bertigoia izaten dut.

- Amets bat...

Erabakitzeko eskubidea izatea, gure herrirako zer gura dugun aukeratzeko eskubidea izan behar genukeelako eta ez naiz bakarrik autodeterminazioaz ari.

- Kolore bat...

Gorria.

- Jateko gogokorik?

Paella, parrandan irten ostean batez ere.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Hipokresiak.

- Oroitzapen bat...

Txindurriko Dantza Taldean hasi eta gurasoen alkohola edaten harrapatu nindutenean. Ur botila bat eskatu nien! (barre artean)

Leire Elustondo

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

MALLABIA 1954

Argazki hau Etxekone baserrian aterata dago 1954 inguruan. Baserri ondoan agertzen dira Etxekoneko 4 ahizpa aitarekin: Bittori, Justa, Eusebia eta Paulina Milikua Zubia. Aurrean eserita aita: Doroteo Milikua Mendaraz.



ERMUA 1955

Bilboko barraketan ateratako argazki honetan ezkerretik hasita daude: Floren Gastón, Ángel Fernández, José Antonio San Martín eta Luis Mari Izagirre. Pozarren ikusten dira, bai, kontiztu!

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [g]

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. © 648 64 37 15



Apirilaren 7an Zorionak June zure 14. urtebetetzean familia osoaren partez.



Maiatzaren 5ean Zorionak Bingen familia eta lagun guztien partez.



Apirilaren 11n Munduko neskarik politenaren urtebetetzea ospatzen dugu urtero apirilaren 11n. Zorionak!!



Apirilaren 16an Zorionak Igor, segi hain guapo eta alai! Zuretzat urte polita izan da, hurrengoan hobeto!!



Martxoaren 17an Jon, Aiur eta Areneren partez: zorionak amama!!



Apirilaren 15ean Zorionak izeba Sandra, ezkontzara joateko irrikitan gaude!!! Zure iloben partez: Jon, Aiur eta Arene.



Maiatzaren 16an Zorionak Kerman zure 10. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoan partez.



Apirilaren 26an Zorionak zure 7. urtebetetzean!! Askoko maite zaitugu Oihan!!!!



Apirilaren 18an Zorionak Luken zure 7. urtebetetzean, ondo pasa eguna eta patxo handi bat etxeko guztion partez.



Apirilaren 12an Muxu potolo handi bat zure familia eta lagunaren partez!!



Apirilaren 8an Zorionak Eider zure urtebetetze egunean. Zazpi urte bete dituzu jada. Segi horrela txapelduna! Musu asko familiaren partez.



Apirilaren 26an Zorionak munduko amarik onenari!!! Eskerrik asko denagatik!! Askoko maite zaitugu Anderrek eta aitak!!! Besarkada handi bat eta muxu asko!!!!

Hurrengo zenbakirako azken eguna: MAIATZAREN 16a

Maiatzaren 5ean Euskal Birusaren urteko batzar orokorra egingo da. Lobianon, 19:00etan.

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

GINEKOLOGA

M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK
IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON, Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsara, Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA
Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR
(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan
Telefonoa: 943 20 28 57

Caperos

Pinxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

ZINEA

1etik 2ra:

"Batman vs Superman 3D" + "Kiki, el amor se hace"

7tik 9ra:

"Julieta" + "El juez"

14tik 16ra:

"El secreto de una obsesión" + "La punta del iceberg"

21etik 23ra:

"Generación Z" + "La noche que mi madre mató a mi padre"

28tik 30era:

"Trumbo" + "Pikadero"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 1:

"El inventor de juegos"

Hilak 8:

"El niño y la bestia"

Hilak 15:

"El libro de la selva 3D"

Hilak 22:

"Ratchet & Clank"

Hilak 29:

"Iparraldeko Norman"

Ermua Antzokian.
20:30ean.

ZINE-KLUBA

Hilak 5:

"El novato"

Hilak 12:

"Incendio"

Hilak 19:

"La chica danesa"

Hilak 26:

"Redención"
Ermua Antzokian.
20:30ean.

MUSIKA

Hilak 4:

Kontzertua: Hartbegeko (Austria) musika eskolako aize musika tresnen banda.: 19:30ean.
Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 6:

Kontzertua: Rózsavölgyiko (Hungaria) gitarra orkestra, Goldkyko (Eslobakia) abesbatza eta ganbara orkestra eta Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Plazan.

Hilak 7:

Pinnebergeko (Alemania) ensemble klarineta eta ikasleak, eta Wileko (Suiza) eta Alboka Musika Eskolako ikasleak. 12:00etan. Plazan.

Hilak 8:

Kontzertua: Irulitxa Txarangaren 20.urreuna: Alboka Musika eskolako ikasleak, Txindurri Taldea eta Irulitxa Txaranga.

Hilak 13:

Abesbatzen kontzertua: Gernikako Seber Altube, Durangoko Begi argiak eta Ermuko Pispillu abesbatzak. 20:00etan. Santiago elizan.

Hilak 14:

Musika eta dantza jaialdia: Andaluziako Zentroaren 25. urreuna. 16:30ean. Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 21:

Vértigo Rock. 15:00etatik aurrera. San Pelaio plazan.

Hilak 27:

Kontzertua-antzerkia: "Ensayo de señoronas". 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 14:

"La flaqueza del bolchevique", K Produksioen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK

Hilaren 2tik 15era:

Margoa: Alberto Ramírez eta Jon Errazuren lanak. Lobiano Kultur Gunean. 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

Hilare 9tik 15era:

Galiziako Letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Plazan eta Galiziako Zentroan.

Hilaren 19tik 22ra:

Euskal liburu eta disko azoka: hainbat ekitaldi. Plazan.

Hilaren 22tik 29ra:

Gaztela-Mantxako Kultur Astea: hainbat ekitaldi.

Hilak 28: 1

"Ermuan Bagara": 12 ordu eta erdi euskaraz: hainbat ekitaldi. 10:00etatik aurrera. Plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



**MUSIKA
ESKOLA**


- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergorako Eskaintza 2016-2017

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Artezkoa



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar



euskara praktikoa

30 urtean, 50.000
lagunek
ikasi dute euskara
gure 100
euskaltegietan

Kaltxango AEK euskaltegia

2016ko EKAINA EUSKARA IKASTAROAK

DBH 4 eta batxillerreko ikasleentzat

Ekainaren 3tik 30era

(izena emateko azken eguna, maiatzaren 27a)
4 orduko ikastaroak - Goizez zein arratsaldez

B2 eta C1(EGA) mailako azterketak prestatzeko ikastaroak
Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

AZTERKETAK URRIAN

B2 Maila

Matrikula-aldia: irailaren 16tik 22ra
Irakurmeneko eta idazmeneko probak: urriaren 22an
Entzumeneko eta mintzameneko probak: azaroaren 24tik 26ra

C1 Maila

Matrikula-aldia: irailaren 16tik 22ra
Entzumeneko eta irakurmeneko probak: urriaren 14an
Idazmeneko probak: urriaren 22an
Mintzameneko probak: abenduaren 2tik 3ra

DIRUZ LAGUNDUAK **Euskaltegi homologatua**

Bizkaia etorbidea 13, behea
943 171 940 · kaltxango@aek.eus

